

# ERRENDERIKO IKASTOLA GAUR

BITOR

Malen jaiak dirala ta, gure errian ateratzen dan aldizkari ontan, joan dan urtean, ikastolaren alde dei bat azaldu zan. Dei ontan, une artako ikastolaren egoera argi ta garbi azalduaz, galdera au egiten zan: Merezi al du ikastolari laguntzeak? Merezi ote du ikastolak betetzen duen edo bete dezakean ekintza orrek gure sakrifizioen eskeintza?

Gaur pozaren pozez esan genezake, gure erriak galdera orri eman dion erantzuna jakin ondoren, ikastolaren etorkizuna aintzakotzat artu ta bete-betean baiezkoa eman diola. Nola ulertu bestela, biurtza gabeko diru-eskeintzak izan duen arrera on izugarria? Leenengo ekiñaldi ontan bazkide edo sozio artean lau milloi inguru biltzeak, ori garbi azaltzen duela aitortu bearra daukagu. Baita ere, Errenderiko Ikastolak, aruten betetzen ditu sortu zanetik, ain zuzen, amar urte ta orduko ogei bat aur ta andereño-irakasle bateko eskolatxo ura iritxi da datorren kursorako 630 aurren matricula pasatzeraiño.

Erantzun auek garbi azaltzen dute, alde batetik, amar urte auen buruan, asiera artako jende askoren beldur eta errezelo txar asko uxatu ta alde batera boteaz, konfiantza guztiarekin, beren seme-alabak ikastolara bialtzea erabaki dutela, eta bestetik berriz, ikastolak asieratik eskeini ta agintzen zituanak, au da: l'go euskera ta euskeraz erakutsi; 2'gn. beste edozein eskoletan bezin ondo aurrak eskolatu eta 3'gn. unfeen ordaiñak alik eta merkeen izatea. Iru elburu auek betetzen alegin guztiak egin ta ainbestean osatu dituala.

Gauzak orrela, orain arte bildu dan diru orrekin, Añabitarte baserri ta lurraldea erosteko egin genuan zorra ordaindu degu, ta argazkian ikusten dan bezela, ekin diogu bertan egingo diran ikastolaren lenengo etxe ta gelak izango diran, jasotze lanari. Gaiñera, eziketako lege berriak eskatzen duana betetzeko, nola-bait ipiñiko bearra ditugu, jolas-leku eta kirol guziak egiteko toki zabal, pelota, futbol, igeritako piszina ta abar.

Gerta leike, Estadu aldetik, berak eskeintzen dituanak, bai irakasle ordaiñak, bai eskola berriak egiteko laguntzak, lege berri orrek ots aundian zabaltzen eta agintzen duan ordaindu gabeko eskolatze ortara noizbait irixtea. Ongi etorria ala gertatuko balitz... baño, eskeintzea eta ematea bi gauza ezberdiñak dirala aspaldi ikasi genduan... Nola nai, gure aldetik, lenago ere bear ziran eskaerak egin gabe ez gaude, ta berriro ere bearrezko dirala iruditzen zaizkigunak, egin gabe ez gera geldituko.

Bien bitartean, zer gerta ere, gure kontuak guk atera bearra ditugu ta laguntza berriak eska bearrean arkitzen gera. Gure arteko diru biltze au iñortxok pentsatzen etzuan aiñakoa izan arren ez da naikoa, bide berriak aztertu eta eskua luzatu bearrean arkitzen gera; dala Aurrezki-Kutxa, Udaletxe, Diputazio, lantoki eta abar, gaur iñoiz baiño geiago, orain amar urte asi genduan lana aurrera eraman ta ekin geionari aurpegi emango badiogu.

Konturatzen gera bizi geran denborak ez dirala errezak eta bizkarrean artuta daukagun zama oso astuna ta pisua dala, baño onen gañetik aztu bear ez deguna da, gure izkuntz eta etorkizuna gaur une larri ta estuan arkitzen dala, ta guk ain euskaldun gerala esaten degunok, gure lan eta eskeintzarekin aurrera atera bear degula, eta danok alkarrengana bilduaz, orain arte bezela itxaropenez jantzita aterako degula.

